



## AUZO-EZTABAIDAGUNEAREN LABURPENA

### 2. TXANDA. 2018

#### TXANTREA

<b>Data:</b>	2019/01/22
<b>Ordua:</b>	18:30
<b>Lekua:</b>	Txantreako Liburutegi Publikoa
<b>Auzoko zinegotzia:</b>	Joxe Abaurrea
<b>Parte-hartzaileak:</b>	44 lagun (32 gizon, 12 emakume)
<b>Alorreko erreferentziako teknikaria:</b>	Elian Peña.
<b>Moderatzailea:</b>	Gabriel de Diego (Herritarren parte-hartzea dinamizatzeko zerbitzua)

#### Gai zerrenda:

1. Hasiera.
2. Udala berriemaile:
  - a. Udal-proiektuei buruzko argibideak
  - b. *Pamplona-Iruña! 2030* Hiri Plan Estrategikoa.
  - c. *Iruñategi* – Gizarte-ehunaren mapa.
3. Auzoa berriemaile: La Txan Merkatari eta Ostalarien Elkarte
4. Udala adi.
5. Amaiera

#### Hasiera

Gabriel de Diegok eman dio hasiera saioari, bertaratu diren guztiei eskerrak emanez. Esker ona adierazi die parte hartzeagatik Joxe Abaurrea zinegotziari eta publiko gisa bertan dauden gainerako zinegotziei. Azaldu du honakoa Txantreako bosgarren auzo-eztabaidagunea dela, eta gutxi gorabehera ordu eta erdi iraunen duela.

Eztabaidagunean izanen diren parte-hartzeen aurretik, de Diegok honako alderdi hauek azpimarratu ditu:



- Herritar aktibo gisa izena emateko aukera, horretarako bertaratuen eskura jarritako fitxetan.
- Haurrendako ludoteka-zerbitzua erabiltzeko aukera, 4 eta 12 urte bitarteko publikoarentzat erabilgarri eztabaidagunea gauzatu bitartean. Hori erabiltzeko, aurreko asteko asteleheneko 20:00ak baino lehen jakinarazi behar da.
- Bertaratuei jakinarazi die saioa Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorraren YouTube kanalaren bidez streaming-en ematen dela.
- Berritasun gisa, jakinarazi da proposamenak eta galderak egin daitezkeela Erabaki plataformaren bidez ([erabaki.pamplona.es](http://erabaki.pamplona.es)); online parte hartu ahalko da egun horretako 19:30era arte, hori baita gerora bateratze-lana egin ahal izateko muga-ordua.

Ohar horiek partekatuta, eztabaidagunearen egitura azaltzeari ekin zaio.

- **Hasiera:** Antso Fernández Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorreko zuzendariaren eskutik.
- **Udala berriemaile:** Joxe Abaurrea zinegotziak auzoan egin diren inbertsioak komentatuko ditu, Xabi Errea udal-soziologoak Iruñeko Hiri Plan Estrategikoa azalduko du eta Antso Fernándezek *Iruñategi* mapa aurkeztuko du.
- **Auzoa berriemaile:** Txantreako Merkatari eta Ostalarien Elkarteak auzoan duten egitekoa azalduko dute.
- **Udala adi.** Mikro irekiko tartea hasi da, eta bertaratu guztiek aukera izanen dute zinegotziari egokitzat jotzen duten oro proposatu, galdetu eta kontatzeko.

## Udala berriemaile

### Antso Fernández Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorreko zuzendariaren parte-hartzea

Antso Fernándezek hitz egin du, bertaratuei zein saioa streaming-en YouTubeko kanalaren bidez jarraitzen dutenei ongietorria eginez.

Zuzendariak bereziki nabarmendu du badagoela gai-zerrenda bat, eztabaidagunean izanen diren parte-hartzeak barne hartzen dituen, eta azpimarratu du auzo-eztabaidagunea

partaidetza-organo sendoa dela, bide ematen duena auzoko zinegotziarekiko zuzeneko hartu emana izateko.

Jarraian, Fernándezek *Iruñategi* proiektuaren mapa aurkezteari ekin dio: auzoetako elkarte-sarea erakusten duen mapa, kasu honetan, Txantreakoa. Azaldu duenez, garrantzitsutzat jotzen du auzoko elkarte-errealitatea osatzen duten eragileak ezagutzea, loturak sendotu edo sortuko badira; halaber, jakitun da argazki hori une jakin batekoa dela, 2018ko maiatzekoa, zehazki. Irigarri du zenbait asteren buruan [asociaciones.pamplona.es](http://asociaciones.pamplona.es) webgunean mapa elkarreragile bat jarriko dela, informazioa eguneratuta.



### **Xabi Errea, Iruñeko Udaleko Estrategia Bulegoko teknikaria**

Xabi Erreak hartu du hitza, eta Iruñeko Hiri Plan Estrategikoa azaltzeari ekin dio.

Testuingurua jartze aldera, Estrategia Bulegoko teknikariak laburki azaldu du plan estrategikoa tresna bat dela, helburu duena herritarren, eragile sozial zein ekonomikoen eta erakundeen artean definitzea zer hiri-eredu nahi den, eta, horrez gain, hori lortzeko egin beharreko bidea zedarritu nahi duena. Halako planak epe ertain-luzean diseinatu eta garatzen dira, 10 urteko ikusmugaz, gutxi gorabehera, horrela bide emateko lankidetzak publiko-sozialari Udalaren zein erakundeen eta eragile sozial eta ekonomikoen artean, betiere hiriko eta bertako herritarren bizi-kalitatea hobetze aldera.

Tresna honek aukera ematen digu hiriaren etorkizunaren gainean pentsatzeko, orain dauden edo sor litezkeen erronkak eta arazoak identifikatzeko, eta, baita ere, hiriak zailtasun horiei



aurre egiteko dituen indarguneak eta aukerak antzemateko. Edonola ere, eta teknikariak zehaztu duenez, plan hau ez da “panazea”, ezta ohiko plan estrategiko bat ere. Plana alde batera, proiektuek etengabeak izan behar dute, eta prozesua bera ere aintzat hartu. Plan horiek etorkizunerako diseinatu nahi den hiri-eredua adostea bilatzen dute, eta helburu hori lortzeko jarraitu beharreko bidea zehazten dute. Adibide gisa aipatu diraartzelona, Bilbo eta Donostia, horiek erreferente baitira, estatuan, metodologia horren ezarpenean.

Gero, eta munduko beste hiri batzuetan abiatutako plan estrategikoen erreposoa egin ostean, Xabier Errea teknikariak zenbait zehaztapen egin ditu *Pamplona-Iruña! 2030* Hiri Plan Estrategikoaz bezainbatean:

Zergatik prestatu Hiri Plan Estrategiko bat? Iruñeko Udalaren nahiak eragin du plan estrategiko hau sustatzeko eta etorkizunerako nahi dugun hiri-eredua zehaztuko duen hiri-plangintza estrategikorako prozesuaren buru aritzeko motibazioa.

Zer ekartzen du? Hiriaren beraren plan bat da, zeinerako epe luzerako konpromisoa behar den herritarren eta eragile sozialen partetik; baina beharrezkoa da, baita ere, konpromiso politikoa, legegintzaldien eta eztabaida alderdikoien gainetik egon behar duena.

Zertarako? Eraitza orokorrek eragina izanen dute batez ere garapen ekonomiko eta sozialean, lankidetzaren publiko-pribatuaren sustapenean, herritarren partaidetzaren sustapenean eta hiriaren estrategia orokor eta integralean.

Non? Aplikazio-esparrua Iruña da, baina kontuan hartuko da, beti, Iruñerriko metropoli-eremua, Nafarroako erkidegoaren testuingurua eta estatuko eta Europako testuingurua.

Noizko? Denborari dagokionez, plana 10 urterako proiektatu da, 2020 eta 2030 urteen artean. Tarte horretan epe labur, ertain eta luzerako helburuak diseinatuko dira. Horretaz gain, epe horrek aukera ematen du NBEaren 2030 Agendarekin eta garapen jasangarriko helburuekin bat egiteko.

Nor? Eragileak: Lidergoa Udalarena da, alkatearen bitartez. Horretaz gain, sektore publikoa, sektore pribatua, elkarte-ehuna eta herritarrak ere badira eragile.



Nola? Iruñeari dagokionez, hiriak dituen eta izanen dituen erronka eta desafioak identifikatzen hasiko da. Ondoren, diagnostiko sakona egingen da gai kritikoei buruz, eta, gero, prospektiba eta etorkizunean izan daitezkeen agertokiak eratzeko lana egingen da, azkenik plangintza eta proiektuen, programen eta jarduketan diseinua egiteko. Azkenik, plana bete eta horren segimendua egingen da.

Arazo eta gai kritikoak identifikatu eta gero, lurraldearekin lotuko dira, jakiteko horietako zein dagoen errotuago auzo bakoitzean. Horretarako, lurraldearen arabera lantaldeak sortuko dira 2019ko otsailetik maiatzera, eta horiek auzoei aukera emanen diete zuzenean lan egiteko hala gai kritiko horien analisisian nola horiei aurre egiteko proiektu eta jarduketan plangintzan.

Lantalde horietaz aparte, beste bitarteko batzuen bidez ere parte hartzen ahalko da Plan Estrategikoan: azaroan eta abenduan egin den inkestaren bidez, erabaki.pamplona.es online plataformaren bidez, HPE foroaren saioetan (aurreikusitakoaren arabera urtarril hasieran egingen da), pamplona.es webgunean eta Twitter eta Facebook sare sozialetan.

Bertaratuetakoko batek egindako galderari erantzunez, teknikariak erantsi du lehen fasea amaitzen ari direla, eta fase horren barruan aurre-diagnostiko bat egin dela, askotariko tresna metodologikoen bitartez, zenbait gai estrategiko antzemateko. Azaldu duenez, hortik lortutako datuak Plan Estrategikoaren egitura osatzen duten beste gune organiko batzuetan alderatuko dira gerora, hauetan besteak beste: 20-30 biltzarrean, non udal-talde guztiak dauden ordezkaturik; 20-30 batzordean, hiriko eragile nagusiez osatuan, eta 20-30 foroan, herritar guztiek parte hartzeko zabalik dagoen foro irekian. Behin gai estrategiko horiek alderatu ostean, galbahe bidezko hautaketa egin eta 10 soilik geratuko dira; uneotan alegazioak biltzeko fasea dago abian, eta [oficinaestrategica@pamplona.es](mailto:oficinaestrategica@pamplona.es) helbide elektronikoaren bidez edo Erabaki plataformaren bidez helarazi daitezke, azken horretan ere Planari buruzko argibide gehiago ere aurki daitezkeelarik.



### **Joxe Abaurrea auzoko zinegotziaren parte-hartzea**

Xabier Errearen ostean, Joxe Abaurrea auzoko zinegotziak hartu du hitza; aurkezpena egin eta bertaratuei eskerrak eman ostean, esan du datozen minutuetan Txantrean gauzatu edo gauzatzen ari diren udal-proiektu eta -jarduketan egoeraren laburpena egingen duela.

Lehenik eta behin, **Salestarren** gunea aipatu du, azpimarratuz zer nolako garrantzia daukan auzoa halako zentro batez hornitzeak; horren erosketa- eta birgaitze-gastuak aipatu ditu. Tamaina handiko eraikina izaki, mailaka birgaituko da; halaber, auzoko zinegotziak komentatu du jada amaiturik dagoen lehen fasean ebatzi direla irisgarritasunari, eszenaguneari eta Auzoko Unitatearen presentziari lotutako zenbait alderdi, azken horrek urte luzez egindako eskaera bati erantzunen diolarik. Orobat, Abaurreak adierazi du lanak bukaturik daudela, eta ekipamendu-hornidurako eta kudeaketako faseak baino ez direla falta.

**Txantrea-Magdalena parkeari** dagokionez, zinegotziak gogora ekarri du aurreproiektu bat hautatu zela prozesu partizipatibo baten bidez, eta orain, hori proiektu kategoriara goratu behar dela. Abaurreak baieztatu duenez, urtarrilaren 25a aldera, ostiralarekin, Udalari helaraziko zaio aipatu proiektua, eta aurreikusitakoaren arabera maiatz edo ekain aldera sartuko dela finantzaz bezainbatean jasagarriak diren inbertsioetan (IFS); hori horrela, baliteke lanak udazken partean abiatzea. Zinegotziak azaldu du aldi berean hasiko direla inguruko eremuak urbanizatzeko lanak, bereziki auzoko hegoaldekoak. Proiektua gauzatzeko lehen fasearen aurrekontua 360.000 euro litzake, eta eremu jakin batzuetako etxebizitzetara zein parkeari lotutako zenbait jarduketa egingo lirateke, gainerako eremuko lanen gauzatzea aurreragoko bigarren fase batera utzita.

Hirugarrenik, **Krispilak-Komunitate-baratzea** proiektua aurkeztu du, eta argitu du, nahiz eta "Udalaren meritua" ez izan, proiektua nabarmentzeko modukoa dela, Udalaren eta ekimenaren benetako egile eta bultzatzaile diren herritarren arteko lankidetzaren eredu baita. Esan duenez, Txantreakoa hirian dauden komunitate-baratzeen sarean sartuko da, jada halako sei gune dituelarik.

**Txantrean Poliki** dela eta, Abaurreak adierazi du auzo-ekimenen beste adibide bat dela, oraingoan mugikortasun jasagarriari lotutakoa, Udalari helarazi eta honek aintzat hartu duena.



Lehenik ekimen horren nondik-norakoak eta funtsak azaldu ditu: oinarria da auzoaren ardatz garrantzitsuenetako bat –halakotzat jotzen da bertan daudelako zerbitzu eta baliabide ugari (Auzo Unitatea, Bernart Etxepare, osasun-etxea, etab.)– ibilerrazagoa egitea hala oinezkoendako nola bizikletetarako; gero, zinegotziak berretsi du otsailaren lehen hamabostaldirako espero dela proiektuaren txosten teknikoa.

**Magdalena** auzoari dagokionez, ibaia eta uholdeek eragiten duten kezka hartu ditu hizpide zinegotziak, eta esan du Argaren eta bere jokaeren ikuspegi bateratu eta orokor batez helduko zaiola gaiari. Hori horrela, esan du arlo horretako aditu-talde galiziar bati enkargu bat egin zitzaiola hori aztertzeko, eta hark jarduketa-metodologia bat prestatu zuela, Abaurreak “Arga Planaren bigarren fase gisa” definitutakoa; izan ere, plan horrek bide eman zion ibai-pasealekuaren arrakastari, baina ez zituen aintzat hartu, ordea, ingurumen edo ekologia esparruko beste zenbait alderdi. Azterketa hori datozen asteotan lizitatuko da, eta otsailean hasiko dira partaidetza-lanak, hiriko hiru ibaietan eragingo dutenak.

Ondoren, **bide-segurtasuna** izan du Abaurreak hizketagai, eta ekainean indarrean sartuko den mugikortasuneko ordenantza berria aipatu du, xede duena gehieneko abiadura 30 km/h-ko abiadurara mugatzea, edo, behintzat, hurbiltzea. Ildo horretan, Herritarren Segurtasuneko Alorrak arrisku handien duten kaletzat hartu dituen bostetako bi Txantrean daude: Mendigorria eta Kanalea kaleak. Horrez gain, zinegotziak esan du Mendigorria kalea aldatzearekin bat, modu partizipatiboan heldu nahi zaiola kale hori eta auzoko hegoaldeko garapen urbanistikoa lotuko dituen biribilgune bat jartzeko egokitasun edo egokitasunik ezaren auziari.

Zinegotziak ukitu duen hurrengo gaia **San Migel** koloniarena da; ezer baino lehen, zenbait datu historiko eman ditu, eta gero, aditzera eman du hori birgaitzeko beharrari buruz aritu direla, elkarlanean, herritarrak eta Efidistrict. Koloniaren hobekuntza urbanistikoarekin batera Gizarte Ekintzako Alorrari lotutako zenbait jarduketa egingen dira.

**Arantzadi** parkeari dagokionez, horri heldu baitio Abaurreak, esan du jada egin dela, zenbait bileraren ostean, bigarren fasea abiatzeko enkargua, eta bereizitako gunek bakoitzerako aurreproiektuen enkarguak ere egin direla; horri lotuta, zinegotziak zenbait lan-ildo aipatu ditu (nekazaritza ekologikoa, artea, etab.). Esku-hartzea, onestekotan, 2019ko bigarren erdialdean gauzatuko litzateke.

Auzoko **katu-koloniak** lan-helburu izan dira ingurumen arloko eta animalien aldeko elkarteek agertutako interesari esker, Abaurreak azaldu duenez. Azken batean, kontrol arduratsuagoa egin da: katuak harrapatu, antzutu, eta bizkarroiak kendu ostean, askatu egin dira berriz.



Gero, Txantreako zenbait eremuren **urbanizazioari eta saneamenduari** lotutako alderdiez mintzatu da Abaurrea. Lehenengoari dagokionez, txalotu egin du Efidistrict-ek herritarrekin egindako lana, horri esker eraikinen energia-eraginkortasunari eta kontsumoari lotutako zenbait gai hobetu direlako, eta aldi berean, Txantrea eredugarri bihurtu delako arlo horretako jarraibide onetan. Jarraian, San Kristobal, Lesaka eta Etxarri-Aranatz kaleen eta Mendigorria kaleko zati baten saneamendua hobetzeko beharrari buruz hitz egin du; lehentasunezko jarduketak izanen dira Udalarentzat, 1.700.000 euroko kostua izanen dute, eta hein batean Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza baten bidez finantzatuko dira. Zinegotziak esan duenez, hurrengo urratsa lanak Etxarri-Aranatz kaletik Artaxoa kaleraino egitea litzateke.

**Labrit** izan da zinegotziak landutako azken gaia, eta hori hizpide hartzean ez du bidegorri hitza erabili, baizik eta igarobide jasangarria: bide publikoaren eraldaketa, lehentasuna emanen diena garraibide jasangarriei oro har (bizikleta, oinezkoak, autobusak), eta Barañaineraino iristen den ekialde-mendebalde ardatzarekiko lotura egingen duena. Erantsi du behin lanak eta txostenak entregaturik, bi aukera daudela, hala teknikariek nola herritarrek ikertu eta aztertu beharko dituztenak, horretarako prestatuko diren zenbait bileratan. Zinegotziak aurreratu du, eta horrela eman dio amaiera bere parte-hartzeari, gai horri buruz eztabaidatzeko lehen saioa otsailaren lehen hamabostaldian egingen dela, Partaidetzako Alorrarekin elkarlanean eta lehen aipatutako *Txantrean poliki* proiektuari loturik.



## Auzoa berriemaile

### **Txantreako Merkatari eta Ostalarien Elkartea**

Diego teknikariak Iñigo Martínez eta Caroli eman die hitza, Txantreako Merkatari eta Ostalarien Elkarteko ordezkari diren aldetik elkartearen ezaugarriak eta bilakaera azalduko dituztenei.

Carol hasi da, elkarteko idazkaria, eta esan du azken urteotan establezimendu asko itxi direla, eta horrek Txantrea lo egiteko auzo bihurtzearen arriskua dakarrela. Horri aurre egiteko, honako elkartea sortzea erabaki zen, eta, hala, merkatari txikiei babesa emateaz gain auzoa bizirik mantentzea du xede. Kolektibo eta elkarrekin lanean aritu nahi du, halako negozioek eskaintzen dituzten gertuko merkataritzak eta zerbitzu pertsonalizatuak azpimarratuz, horiek eraikitzen baitute auzo-paisaia. Idazkariak saltoki txikietan eta Txantreako ostalaritzak establezimenduetan kontsumitzeko deia egin du, hori baita auzoko pertsona guztiek bizileku duten komunitatea indartzeko bidea.

Jarraian, Iñigo hasi da hizketan, eta Iruñeko Udalari eskertu dio tartetxo hau eman izana urtebeteko ibilbidea duen elkartearen helburuak ezagutzera emateko. Azaldu duenez, sortu zenetik zenbait jardura egin dira auzoan, eta sare-lana egin da auzoko merkatariekin, ikastetxeekiko harremanak estutuz, besteak beste. Azken urteotan saltokien % 20 eta ostalaritzak establezimenduen % 15 galdu dela ikusita, auzo biziberritzea da elkartearen xedea, eta hori nabarmendu nahi izan du. Datorren urteari begira, ezin da asko zehaztu, proiektuaren onespeneren zain baitaude.

Esan du, baita ere, elkartearen helburuetako bat auzo-sentsibilizazioa lantzea dela; izan ere, auzokideak ere erantzule dira, kontsumo-ohituren aldaketaren bidez, gai horren irtenbidean. Merkataritzako zein ostalaritzako establezimenduekin kultur programazioak antolatzea da ideia, eta gizarte-coworking bat prestatzea. Azkenik, Martinezek aipatu du ikastetxeekin batera unitate didaktiko bat prestatzeko asmoa dutela, eta etxetik etxera buletina bat egiteko ere, betiere Txantreako kaleak biziberritzea helburu nagusi delarik.





## Udala adi

De Diegok eman dio hasiera *Udala adi* atalari, bertaratuei gogoraraziz honako inguruabar hauek: hitza eskatu behar da; mikrofonoa erabili behar da, eztabaidagunea streaming-en ikusten dutenek ongi entzun ditzaten guztien iritziak; besteen parte-hartzeak errespetatu behar dira, eta, ahal den neurrian, iruzkin labur eta zehatzak egin.

Lehen parte-hartzailea Ezkaban bizi den auzotarra izan da, eta galdetu du ea auzo hori auzo-eztabaidagune horren esparruan dagoen ala ez; Abaurreak erantzun dio “auzo” terminoa kontzeptu soziala dela, eta administratiboki egokia dela Ezkabaren inguruko alderdiak halako bilera batean jorratzea. Behin zalantza argituta, aditzera eman du, Hiri Mugikortasun Jasangarrirako planari eta aurreikusitako jarduketek mugikortasun-alderdiei loturik, Kanalea kalean bi harrapatze gertatu direla berriki, bai eta Txantreatik ingurabidera joateko irteerako oinezkoen pasabidean ere. Jarraian, gauetako villavesen geraleku seguruen harira, kezka agertu du N7aren inguruan, eta Kanalea kalean geraldia egiteko aukera aipatu du, ikusirik emakumeek etxera bueltan antzematen duten segurtasunik eza. Ondoren, argiteria publikoa itzaltzeko ordutegia hartu du mintzagai, zenbait kale-argitan aldaketak egiteko aukera aipatuz, horrela argi gehiago egon dadin kale-kantoietan eta oinezkoen pasabideetan; Ipar ingurabidearekiko paraleloan dagoen kalean izozteei aurre egiteko egin daitezkeen jarduketak ere aipatu ditu. Azkenik, gogora ekarri du Ezkabako bizilagunek eskaera egin zutela asteburuetan ikastetxea zabalik egon zedin, auzotarrek zuzkidura-gune gisa erabiltzeko.

De Diegok Abaurreari pasa dio mikrofonoa, eta azken horrek azalpenak eman ditu: Kanalea kalean arriskugarrientzat jotzen diren bost kale horietako bat da, hortaz, hori eta Mendigorria kalea izango dira lehen jarduketa-tokiak. N7 villavesari dagokionez, aldiz, Mankomunitatearen eskumena izaki, ideia helarazi besterik ezin duela egin esan du. Eremuko argia baloratu beharreko zerbait da, jakina, hartara oreka lortzeko argi-kutsaduraren eta herritarren segurtasunaren artean. Herritarrak aipatu izotz-arazoa dela-eta, eta elur-dispositiboa joan den astean bildu zen arren, Ipar ingurabidearen kale paraleloan sortzen den arazoa helarazteko konpromisoa hartu du zinegotziak. Azkenik, ikastetxea eskola-orduetatik kanpo irekitzeko proposamenak dakarren gastu handiaz hitz egin du, horrek garbitzaileak egotea eskatzen duelako, eskola-guneak ikasleendako egoera onean mantentzen direla bermatuko bada.



Proposatu du nolabaiteko adostasuna lortzea Guraso Elkartearen eta beste entitate batzuen artean, guneak garbi mantentze aldera.

Gero, Orvinako auzokide batek hartu du hitza; kezkatuta dago 60 urtetik gorakoak gehiengoa direlako auzoan, eta proposatu du adinekoak komunitatean zaindu beharko liratekeela, zeharkakotasunez. Gràcia auzoan egiten ari diren adinekoendako plana aipatu du, immigranteen gizarteratzearen jarraipena ere egiten duena eta ez dena “ezein erritmo politikora” atxikitzen. Bere ustez, Partaidetzako Alorreko teknikariek “kalera irten beharko lukete eta hemen behean gaudenok egiten dugun lana egin”, pertsona batzuek arrazoi desberdinak direla medio egoera prekarioak bizi dituztela argudiatuz. Alokairuen prezioaren arazoa eta “korporazio harrapakariak” iristeko arriskua komentatu ditu gero. Amaitzeko, Arantzadi ekoparkearen proiektuaren gaia atera du; esan duenez, pozoiak erabiltzen, trikuak hiltzen eta abar ari dira, eta, hortaz, lehenbailehen esku hartu beharko litzateke.

Zinegotziak mikrofonoa hartu eta auzotarrak egindako galderak erantzuteari ekin dio. *Etxekide* proiektuaren berri eman du: 50 urtetik gorakoek osatzen dute, eta asmoa da *eco-housing* edo etxebizitza kolaboratiboen antzeko guneak eratzea, ohiko egoitzen aldean bestelako aukerak eskaintzen dituzten zaintzaguneak. Halako proiektuak ontze-prozesuan ari dira, baina nahiko aurreratuta. Immigrazioari eta gizarteratzeari loturiko gaiak lantzen dituzten zenbait proiektu aipatu ditu, Iruñean erdietsi nahi den harrera-hiri izaeraren barruan sartzen direnak.

De Diego teknikariak parte-hartzeek ahalik eta laburren eta zehatzen izan behar dutela gogorarazi ostean, auzotar batek hitza hartu eta eskerrak eman dizkie bai herritarrei bai Udalari parte hartzeko eta elkarrekin aritzeko halako guneei bide emateagatik, batez ere *Auzoa berriemaile* atala dela eta, eta Merkatarien eta Ostalarien Elkarte berriari. Auzotarrak bi galdera egin ditu: Zer nolako eragina dauka auzoko proiektuetan aurrekontuak onetsi ez izana? Zertan datza Doneztebe, Lesaka, Elo kaleetako eta abarretako hegoaldeko saneamendu- eta urbanizazio-proiektua?

Lehenengo galderaren harira, gai korapilatsua dela erantzun du zinegotziak, eta zehaztu du aurrekontuak luzatu izanak ez duela esan nahi aurreko aurrekontuei helduko zaienik, baizik eta zenbait doikuntza egin beharko direla. Edonola ere, jada nolabaiteko ibilbidea duten proiektuek aurrera jarraituko dute, eta proposamen baino ez zirenak berrikusi beharko dira: batzuetan



atzerapenak egonen dira, besteetan birmoldaketa egin beharko da, eta abar. Gobernu-taldearen asmoa da proiektu guztiei bide ematea; horixe erantsi du. *Txantrean poliki* proiektua azterketa-fasean dagoela zehaztu du, eta, beraz, oraindik badagoela denbora finantziazioaren zain egoteko.

Hegoaldea berriz urbanizatzeko proiektuari dagokionez, Abaurreak azaldu du kaleetako zorua altxatuko dela, eta dauden saneamendu-arazoak konponduko direla. Gainera, berokuntza-komunitateak ere sare propio osoa berritzeko premia aipatu da. Saneamendu-lanen ostean, goiko aldea berriz urbanizatuko da, eta zaharberrituko. Edonola ere, zinegotziak azpimarratu duenez, ez dira urbanizazio-lanak, baizik eta saneamendu- zein hobekuntza-lanak, eta 2019.urtean zehar gauzatuko dira.

Ondoren, Mari Cruzek, Ezkabako auzotarrak, hartu du mikrofonoa, eta 2018ko abenduan inauguratutako baliabide bat aurkeztu du, *Iruñategi* ekimenaren mapan agertzen ez dena. Nafarroako boluntarioen *Navarra más voluntaria-Nafarroa orotan lagun* argibide-gunea da, eta bertan boluntarioak elkarrekin harremanetan jar daitezke, prestakuntza-ikastaroen berri eman eta aholkularitza eskaini. Oraingoz elkarrekin ari dira lanean, baina aurrerago herritarrekin aritzeko asmoa dute. Lehen urratsak egiten ari dira oraindik, baina garrantzizkotzat jo du ekimena auzo-eztabaidagunean aurkeztea.

Abaurreak esan du halakoak ongi etorriak direla, eta zehaztu du auzoak, bizirik mantenduko bada, horixe behar duela, antolamendu zibila, batez ere halako partaidetza-organoetan aurkezten badira.

Antso Fernández ere batu da Ezkabako auzotarrak aurkeztutako elkarteari ongi etorria ematera, eta ez da harekin harremana duen lehen aldia, erantsi duenez. Gogorarazi du aurkeztutako mapa 2018ko elkarte-ehunaren argazki finkoa zela eta hurrengo asteotan mapa elkarreragile bat egonen dela, zeinean baliabide berri hori txertatu ahalko baita.

Ondoren, auzotar batek auzoko zenbait kaleren egoerak sortzen dioten kezka agertzeko parte hartu du. Esan duenez, duela bost urte aurkeztutako kexa bat da, eta hauxe da haren muina: espaloien estutasunak, zuhaitzek, txorkoek (horietako batzuk berriki beteak) eta gauetan izaten den argi eskasak arriskua dakarte, bereziki adinekoendako edo aulki gurpildunen



erabiltzaileendako. Jarraian, Paternain eta Imarkoain kaleetako zuhaitz-aldaketa hartu du hizpide, eta eskatu du bertako bizilagunei galdetu diezaietela zer balorazio egiten duten; parte-hartzea amaitzeko, ildo horretan Ororbia kalerako planteatu den eraberritzeaz galdetu du.

Abaurreak, hari erantzunez, auzotarrak mahaigaineratu duena “Txantreako lehen etxeetako” berezko arazoa dela esan du, eta balizko bi esku-hartze aipatu ditu. Lehen irtenbidea oinezkoen joan-etorriak lehenesten dituen *Txantrean poliki* proiektuaren tankerako ekimenei lotuko litzaietela, eta, bigarrena, espaloietako txorkoak galtzadara lekualdatzea litzateke, beste kale batzuetan egin dena. Lehengoaren alde egin du zinegotziak, koste baxukoa izateaz gain oinezkoarentzat berreskuratzen duelako galtzadari emandako tokia; eta bigarren irtenbidea beste eremuetarako utziko luke, alegia, zio ezberdinak direla medio horrelakorik egitea ezinezkoa den eremuetarako.

Gero, Auzolan aldizkariko ordezkari batek Magdalenako zubia zaharberritzeko aukerez galdetu du, 2022.urtea –Donejakue urtea den aldetik– eta mugikortasun urriko pertsonak bertatik igarotzean dituzten arazoak aipatuz. Zoladura ez ezik gurutzadura eta Santiagoren irudia ere –bandalismo-ekintzak pairatu dituen– hobetu beharko lirateke jarduketaren barruan, auzokidearen arabera. Irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzearen gaiari jarraituz, parte-hartzaileak bigarren eskaera bat egin du: arrapatatxo bat jartzea Labriteraino doan errepide zaharrean, berriki eraberritu diren eskaileren parean. Azkenik, beste zenbait gai aipatu ditu, erraldoien etxea, Santa Teresa plazako aparkalekua, biomasa-zentrala eta energia merkaturatzeko udal-enpresa.

Hasteko, zinegotziak aditzera eman du 2015ean jarduketa bat egin zela zubian, eta eraberritze-lan horiek Erdi Aroko harresi eta zubien mantentze- eta zaintze-lanen partida bati loturik daudela; Magdalenan eginen den hurrengo jarduketari buruz galdetuko duela esan du. Gurutzadurari dagokionez, munta handiagoko jarduketa beharko litzatekeela esan du, eta, horrez gain, Ondare Zerbitzuarekiko koordinazioa; horren harira aipatu ditu Sarasateren mausoleoan berriki egin diren eraberritze-lanak eta Udaletxearen fatxadako irudiek behar dutena. Erraldoien etxeaz bezainbatean, eta lokal horretako berezitasunak aipatu ostean, behin aurrekontua jasota hori onetsi eta finantzatzearen zain daudela azaldu du.



Auzoko beste bizilagun baten txanda da, eta Salestarren antzokia erabiltzeko datei buruz galdetu du, laster zenbait urteurren ospatu beharko direlako eta inauterien kariaz badirealako jada zenbait eskaera; Irubide pilotalekuaz eta hura erabiltzeko aukerez ere galdetu du.

Hari erantzunez, mahai gainera ekarri du aukera bat, posible izan dadin udal-langileek Irubide pilotalekuaren giltzak edukitzea, hura erabili ahal izateko, hori, betiere, Salestarren eraikina birgaitu eta haren kudeaketa definitu ostean. Beste kontu bat, Nafarroako Gobernuak jada onartutakoa, parkeari loturik dago, eta institutuaren ondoko hormaren eraberritzeari, eta horrek, gainera, Abaurreak azaldu duenez, berekin ekarriko luke sarbide errazagoa pilotalekura eta kirol-pistetara. Antzokia dela eta, obrak amaitu direla jakinarazi du, eta, beraz, koordinazioa eta antolamendua besterik ez direla falta, datozen topaketa eta bileretan landu daitezkeelarik.

Auzotarren azken-parte hartzea Irubideko Erretiratuen elkarteko Santiagorena izan da, eta aipatu du beharrezkoa dela aintzat hartzea osasun-etxera zein erretiratuen elkartera bera joaten direnetako asko, mugikortasun urriko pertsonak izaki, autoz joaten direla.

Zinegotziak erantzun dio kale horretarako proiektua hilabete baino gutxiagoan aurkeztuko dela, eta plazaratutako kontu hori kontuan hartzea "arrazoizkoa dela, erabat"; aurreratu duenez, osasun-etxearen kasuan, bertako erabiltzaile eta langileendako erreserbatutako tokiak jartzeko aukera gogoan hartu da, eta ideia hori ere elkartera hedatu liteke. Gakoa da dagoen zirkulazioa murriztea, inolaz ere autoaren premiazko erabilera, auzotarrek egin ohi dutena, desagerraraztea; hori esanez amaitu du Abaurreak.



## Amaiera

De Diego topaketaren moderatzaileak eskerrak eman dizkie bertaratu guztiei beren parte-hartzeagatik, eta mikrofonoa Joxe Abaurreari eman aurretik, Erabaki web-orria bisitatu daitekeela gogorarazi die, bertan aukera baitago Txantrean egin diren auzo-eztabaidaguneen analisia eskuratzeko.

Ildo horretan eta agur esan baino lehen, auzoko zinegotziak gogorarazi du laster Labrit eta Laguntzako Andre Mariako proiektuei loturiko bilerak egingo direla; halaber, pozik agertu da elkarte berriak sortzen ari direlako eta zenbait ekimen, komunitate-baratzeena kasu, zehazten ari direlako.

### Zentro. Elkarlaneko gunea

**Kondestablearen jauregia. Kale Nagusia, 2, 2. solairua. Iruña**

**948 420266**

**[participacionciudadana@pamplona.es](mailto:participacionciudadana@pamplona.es)**

**participa.pamplona.es**

**erabaki.pamplona**